

txintxarri



Inauteri jaiak herrian errotzen?

Lasarte-Oriako inauteri giroa aztertuz. / 6-9

TXINTXARRI

Mobilizatzeko deia

GuraSOSen igandeko manifestazioan parte hartzera deitu dituzte herritarrak /5

Zumaburuko
eskolako lanetan
Udalak bere esku
zegoena egin duela
argitu nahi izan du /2

Donostiarra
traineruan debutatu
du Intza Fernandez
herritarrak
"sentsazio onekin" /10

Josue
Igeltseritza

Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

606 37 21 05
Atallu pol. atallu, 28
USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

ELECTRICIDAD
ARREGUI

LED
zutikako lanparak
eta *powercube* lapurrak

Diseinu berritzaileenak, guztion eskura

600 857 586
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

- Eramangarria
- Erosoa
- Aukeran usb sarrera, kable luzagarria...

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21



Haurrek iraileko ikasturte berria Sasoeta-Zumaburu eskolan hastea nahi du guraso elkarteak. TXINTXARRI

Zumaburu eskolako lanen inguruko argibideak

Zumaburu eskolako obren inguruko argibideak eman ditu Lasarte-Oriako Udalak idatzi baten bitartez. Honetan, udalaren eginkizunen berri eman nahi izan dio Sasoeta-Zumaburu Guraso Elkarteari.

Maddi Noriega

Haurrek, irailean hasiko den ikasturte berria Zumaburuko eskolan hastea nahi dute Sasoeta-Zumaburu Guraso Elkartearen gurasoek. Horretarako, Zumaburuko eskolan hainbat berritze lanetan ari dira, eta udalak horien berri eman nahi izan du igorritako idatzi baten bitartez.

Lehenik eta behin, eskolako estalkia eta fatxada konpontzeko udalak hasitako lanak "aurki" amaituko direla jakinarazi du, eta horrekin batera, Zumaburuko elizaren patioa estalkiarekin kosturik ez dela gehitu nabarmendu du udalak.

Estrukturan antzemandako akatsek esku-hartze bat behar dutela azaldu dute, baina lan hori, Eusko Jaurlaritzari dagokiola argitu du udalak. "Gaur egun egitura sendotzeko obrak egiteko proiektua idazten ari da, eta 600.000 euroko da lan horietarako aurreikusitako diru kopurua".

Honekin batera, inongo ikasgelatako sabairik ez dela erori argitu nahi izan du udalak, "Erketz dantza taldeak bere jantziak gordetzeko erabiltzen zuen biltegia baizik".

Udala prozesu honetan egiten ari den lanaren erakusgarri dira, baita ere, estrukturan lagina eta jubilatuen elkartearekin areto bat eskolako umeen jantoki gisa erabili ahal izateko egindako kudeaketa. Isla plazako haur-jolasak hesitu dituzte, eta Loidibarrengo pilotalekua

SALTO-GELA EDO PSIKOMOTRIZITATEA LANTZEKO GELAREN INGURUKO ARAZOARI EUSKO JAURLARITZAK AURRE EGIN BEHAR DIOLA ADIERAZI DU UDALAK

erreserbatu dute euria egiten duen egunetan jolastoki gisa erabili ahal izateko. Udalak bidezko ikusten du Biyak Bateko Elkarteak behar honen aurrean erakutsi eta izan duen lankidetzeta eta egindako ahalegina aitortu eta eskertzea.

Azken puntu gisa, salto-gelaren inguruko argibideak eman nahi izan dizkio udalak, Sasoeta-Zumaburu Guraso Elkartearen guraso taldeari. Horrela, salto-gela edo psikomotrizitatea lantzeko gelaren gaineko eskumena eta erantzukizuna Eusko Jaurlaritzari dagokiola argi utzi nahi izan dute; "haiek dira arazo horri konponbide eman behar diotenak".

Behar bezalako koordinazioa

Arazoei irtenbide bat eman asmoz, Zumaburu Ikastetxeko zuzendaritza eta guraso elkartearekin behar bezala koordinatu dela ere azaldu du udalak; "informazio guztia haiekin konpartitu dugu".

Sortzaileen mugikortasunerako bigarren deialdia ireki da

Euroeskualdean sortzaileen mugikortasunerako bigarren deialdirako hautagaitzak aurkezteko epea zabaldu da

Maddi Noriega

Sortzaileen mugikortasunerako bigarren deialdia ireki da Euroeskualdean. Mugikortasun proiektu honen bitartez, parte-hartzaileek bizpahiru egunetan topaguneak partekatu, hitz egin, sareak eraiki ideiak konektatu, sinergiak bilatu eta ideia berrietan kooperatu ahalko dute.

Mugikortasun deialdi hau, Eusko Jaurlaritzak Aquitaine-Euskadi 2016 proiektuen deialdiko bigarren saioa da, eta programa honek 24 gazteren -12 eskualde bakoitzeko- mugikortasuna

ahalbidetuko du, Euroeskualdean ekosistema sortzailea indartzeko asmoz.

Bost helburu.

Ezagutza, esperientziak edota proiektu interesgarriak partekatu eta gazteen gaitasunak hobetzea, sentsibilizazio mugaz bestaldeko lankidetzeta aukeren eta ezagutzaren inguruan, kapital sozialaren areagotzea eta lan sareak sortzea, negozio aukera berriak hautematea, eta lurralde eragile dinamizatzaileen sinergiak sustatzea.



TXINTXARRI

Saritutako bi herritarrak

Maider Zurriaran eta Leire Tejedor izan dira Buruntzaldeko Udala eta autoeskolek urtero egiten den zozketan gidabaimena euskaraz ateratzeagatik saritutako herritarrak. Sarituekin batera, Jon Antxordoki Euskara Batzordeko lehendakaria, Mujika autoeskolako arduradun Ana Mujika eta Euskara zerbitzuko teknikari den Marifer Gorostiza izan ziren ekitaldian. Beraien eskutik jaso zuten saria.

Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloaren azken saioa

Otsailaren 20an amaituko da aurtengo Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa, eta hainbat izango dira egun horretan ikusi ahal izango diren filmak.

Eguneko lehena, Daniel Aldayaren 'Angelita' izango da. Hau bukatuta, Guillaume Vinceneren 'La Comquete des Oceans' filmaren bigarren zatia

eskainiko dute, eta hau amaitu erakoan, Erick Higuieraren 'Fisterra', Carlos Villocheren 'Raja Empat Reefs', eta Jose L. Huertosen 'Expedicion Wallacea'.

Horiek guztiak ikusteko aukera izango dute arratsaldeko 19:00etan Manuel Lekuona Kultur Etxera gerturatzen diren herritarrek.

Otsailaren 6an eman zitzaion hasiera zinema zikloari. Orduaz geroztik, hilaren 13an izan zen bigarren saioa, eta astelehen honetan izango da azkena.

Ipar Martxaz gehiago jakiteko ikastaroa

Gorakada nabaria izaten ari da Ipar Martxa kirol modalitatea azken denboran. Geroz eta herritar gehiago ikusi daitezke hiriguneaz kanpoko bideetan makilen laguntzaz oinezko ibilbideak egiten. Martxoan ikastaroa eskainiko du Ttakun Kultur Elkartek.

Maddi Noriega

Ostadar SKT-k kirol modalitate hainbat hartzen ditu bere baitan; Ipar Martxa horien artean.

Gorakada nabaria izaten ari da Lasarte-Orian kirol modalitate hau; geroz eta herritar gehiago ikusi daitezke hirigunetik kanpo geratzen diren bideetan oinezko ibilbideak egiten.

Aurtengoan, bigarren goz antolatzen du Ttakun Kultur Elkartek Ipar Martxa ikastaroa. 'Fisikoki, gihar, bihotz eta psikomotrizitatea lantzeko oso kirol teknika eraginkorra da', adierazi dute antolatzaileek.

Ikastaroa lau saiotan banatuko litzateke, eta saio bakoitzak bi ordu eta erdiko iraupena izango lukete.

Lehena, Martxoaren 7an izango litzateke, asteartez. Hau goizeko 09:15 etatik 11:45tara egitea aurreikusitako antolatzaileek eta Junkal Perez izango da hezitzailea.

Bigarren saioa, martxoaren 11ean, larunbata izango da eta hau ere goizez; 10:00etan hasi eta 12:00ak bitarte irauko du Alex Ramosek gidatutako saioak.

Hirugarren saioan Rosa Ormazabal arituko da hezitzaile lanetan, eta martxoaren 14an izango da; asteartea, arratsaldeko 17:30etatik 20:00tara.

Laugarren eta azken saioa Martxoaren 18an, larunbatez eskainiko da eta goizez izango da saio hau ere; 10:00etan hasi eta 12:30ak bitarte eta Begoña Morianak gidatuko ditu parte-hartzaileak.

Saio horiek guztiak, bi modulutan banatuta eskainiko dira; kirol modalitatearen alde teknikoari eskainiko zaio saioaren denbora-tarte bat eta ibilbideak egingo da gero. Saio horiek, Atsokabar auzoko parke inguruetan egin asmo dituzte, eta eguraldiak lagunduko ez balu, Trinketen izango dira saioak.



Ipar Martxa kirol teknikaz gehiago ikasteko saioak izango dira. TXINTXARRI

Ikastaroan parte hartu ahal izateko izen-ematea zabalik dago jada. Horretako, Ttakun Kultur Elkartetik pasa behar dute ikastaroan interesa dutenek.

Prezioari dagokionean, bi kuota ezberdin finkatu dira ikastarorako; Ttakuneko bazkide diren parte-hartzaileek 9 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek aldiz, 12 euro.

Izen ematean ordaintzen duten parte-hartzaileek izango dute lehentasuna.

GUZTIRA, BI ORDU ETA ERDIKO IRAUPENA IZANGO DUTEN LAU IKASTARO EMANGO DIRA. MARTXOAREN 7AN, 11AN, 14AN ETA 18AN IZANGO DIRA TTAKUNEK ETA OSTADAR SKT-K ELKARLANEAN ANTOLATUTAKO SAIOAK.

Ikastaroa aurrera eraman ahal izateko baldintza bat dago ordea; gutxiengo lau parte-hartzaile elkartu beharko lirateke saioak egin ahal izateko. Parte-hartzaileen gehiengo kopurua ere zehaztu dute; hamabi pertsona.

Ikastaroa euskaraz

Antolatzaileek jakitera eman duten moduan, martxorako aurreikusitako Ipar Martxa ikastaroa euskaraz emango da.

Aisialdirako aukera paregabea

Jendea ezagutu, taldekideekin harremana sortu, solasaldiak izan eta beste hamaika aukera aukera eskaintzen ditu kirol modalitateak.

Parte hartzerantz animatzeko deia

Heldu zein gazte, emakume ala gizon herritarrak animatu nahi dituzte kirol teknika berritzaile honetan parte hartzerantz. Aditza eman dutenez, orain arte sortuta dauden Ipar Martxako bi taldeetan, gizonen aldean emakume parte-hartzaile gehiago dira eta hori parekatzeko, gizonazkoei ere deia luzatu nahi diete antolatzaileek, baita gazteei ere.

NEURE KABUZ



ANE LABAKA

Niri euskaraz, edo kalera

"Euskalgintzaren arazoa D ereduko irakasleak gara". Hala entzun diot duela gutxi esperientziadun maisu bati. Nik ere, nire gaztean, metatu ditut zenbait esperientzia bertsolaritzako irakasle bezala hara eta hona pasatako azken hiru urteotan. "La de bertso" honek bi astean behin zapaltzen du ikastetxe ezberdinetako ikasgela bakoitza ikasleei euskaraz (eta euskararekin) ere jolas egin dezaketela irakatsi nahian.

Irakaskuntzarekin inongo loturarik ez duzuenoi helburu simple samarra irudituko zaizue agian. Zoritxarrez besteok ondoegi ulertuko nauzelakoan nago. Erreta sumatzen zaituztet, euskararen gaiarekin erreta. Eta etsita. Ikastetxeetako paretak euskararen aldeko horma-irudiz beteta ageri dira; ikasleen mihietan ez dago arrastorik. Euskarak alde egiten du, alde egotetik egiterako jauzi horretara galtzen da.

Egiari zor, ni ere sarritan galduta sentitzen naizela aitortu behar dizuet. Bizitzan errazagoa zait zerbait nola EZ nukkeen egingo detektatzea nola egingo nukkeen asmatzea baino. Eta barkatuko diozue esperientziarik gabeko irakasle ezjakin honi, baina egingo EZ nituzkeenak etengabe errepikatzen zabilzate arbelen aurreko eremuetan.

Azkenekoz zuetako batek gazteleraz ari zen ikasleari botatako errietak niri ere berarekin batera ikasgelatik ihes egiteko gogo sortu zidan. "Niri euskaraz, entzun? Edo kalera!" ozen hark tinpanoa zulatzen dit oraindik. Ikasle motelenak ere bi ondorio argi aterako ditu esaldi horretatik: euskaraz irakasleari soilik egin behar zaiola, batetik, eta, bestetik, gela barruan soilik egin behar duela (zigorrik jaso nahi ez badu). Kalea ez dagokio, beraz, euskarari. Ez kalea, ez jolasa, ez aisia, ez gozamenena...

Eta nik berriro diot EZ nituzkeela gauzak horrela egingo.

Lasarte-Oriako bertsolariak Urretxun izango dira gaur

Herriarteko Bertsolari Txapelketa martxan da eta asteburu honetan ere izango dira hainbat saio.

Lasarte-Oriarrak Urretxun arituko dira oraingo honetan, Urretxu-Zumarragako Si mimimi

sol taldearekin lehiatuko dira Earra! Bertso Eskolako herritarrak.

Aste honetako saioa, Urretxuko Gaztelekuan izango da, gaueko 23:00etatik aurrera.

Gipuzkoako Herriartekoa otsalean abiatu da eta maiatzaren 27ra bitarte irauko du; egun horretan izango da finala Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan

Ameriketako Estatu Batuak
Mendebaldeko kostak
Irteera Lasarte-Oriatik, NOAA BIDAIAK-ek lagunduta

MAIATZAK 14-28
ezagutu...

Los Angeles
Grand Canyon
Las Vegas
Yosemite
San Francisco
eta askoz gehiago!

Hipodromo Etorbidea, 10 - 20160 Lasarte-Oria, Gipuzkoa
T. 943 373 613 | info@noaobidaiak.com
www.noaobidaiak.com



Otsaileko ohiko Udalbatzarra egin zen asteartean eta gai zerrenda anitza izan zen aztergai. TXINTXARRI

Eztabaidarako 10 puntu astearteko Udalbatzarrean

Asteartean ohiko Udalbatzarra izan zen, arratsaldeko 18:30ean. Bertan, Nuria Fernández Castrillo Sozioekonomia batzordeko zinegotziaren kargu hartzea berriekin eman zitzaion hasiera. Hainbat mozioa aurkeztu zituzten udal taldeko alderdiek.

Maddi Noriega

Otsaileko ohiko Udalbatzarra egin zuten udal ordezkariak astearte arratsaldean.

Nuria Fernández Castrillo zinegotzi berriaren kargu-hartzeak eman zion hasiera ohiko Udalbatzarrari. Iragan urtarrilaren 10 ean, Sozioekonomia batzordeko buru Beatriz Juez zinegotziak kargua utzi zuen eta honen ordezkari

aritu da orain, Fernandez Castrillo.

Zinegotziak karguari zin eginda, Ahal Dugu Lasarte-Oriak aurkeztutako mozioari heldu zioten. Honetan, Eusko Jaurlaritzari eskatzen zion Lanbide arteko Gutxiengo Soldatei %8ko igoera aplikatzea 2017. urtean, baina aldeko 6 boto eta aurkako 10 lortuta, mozioa ez zen

aurrera atera. Honen ordezkari, EAJ eta PSE-EE alderdiek aurkeztutako emendakina onartu zen aldeko 10 eta aurkako 6 botorekin. Honetan, bi eskakizun egiten zizkien Eusko Jaurlaritzari; lehena, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari lotutako aspektu guztien diagnostiko espezifikoa irabazteko erreferentzia indizeari

buruzko gogoeta bat gehitu diezaiola; eta bigarrenik, lan aktibazioarako programa eta baliabide berriak bultzatu ditzala.

Honen ostean, alderdi popularrak aurkezturiko mozioa bozkatu zen. Bertan, Froilan Elesperen omenezko minutuko isilunea egiteko eskaera egiten zuen PP alderdiak, baina aldeko boto bakarrarekin, aurkako 3rekin eta 12 abstentzioarekin, ez zen gauzatu mozioa. PSE-EEK terrorismoaren biktima guztiekiko elkartasuna adierazi zuen, eta udalean, elkarbizitzarako osatutako mahaia ekarri zuten gogora; horretan PPko ordezkariak ez du parte hartzen.

EH Bilduk etxegabetzeak ekiditeko gizarte laguntzen aurrean finantza erakundeek duten jarrera salatzeak aurkeztutako mozioa izan zen hizketagai. Honetan, lau puntu ezberdin ekarri zituen EH Bilduk mahai gainera; lehenik "udalak finantza erakundeek aldetik mailegua estua eta ordaindu ezinean dauden bezeroekiko dagoen jokabidea" irmoki salatu zuen alderdiak. Bigarrenik, "udalak, Lasarte-Oriaren bulegoa duten finantza erakundeekin harremanetan jarri eta beraien jarduna nolakoa den ezagutzeko konpromisoa hartzen du". Hirugarrenik, "Praktika Onen Kodeak derrigortzen dituen moduan, bezeroen artean aukera honen berri zabaltzeko neurriak har ditzatela exijitzen die herrian bulegoa duten finantza erakundeek". Eta laugarrenik eta azkenik, "Praktika Onen Kodeari zabalkundea emateko, informazio kanpaina bat garatzeko konpromisoa hartzen du; bide batez, Gizarte Zerbitzuetara laguntza eske hurbiltzen diren herritarrei gaiaren inguruan

informazio zehatza emateko baliabideak jarriko dira". Proposamen hau aho batez babestu zuten.

Mozioekin amaitzeko, asteazkenetako azoka eta bertako sektorea berrindartzeko mozioa aurkeztu zuen EAJk. Asteazkeneko, kale Nagusian egiten den azokak eta larunbatetako arautuko duen ordenantza bat sortzea proposatzen zuen EAJ alderdiak. Honekin batera, azoka horientzat kokaleku berri baten proposamena egin zen.

Hilabeteko ez-ohiko azoka bertako eta eskualdeko lehen sektoreko produktua kontsumitzen ohitzeko jarduerak berriak aztertzea ere proposatzen zuen EAJk eta guzti honekin batera, azokako saltzaileei, Aterpeari eta kontsumo kooperatibei guzti honen berri ematea haiek euren ekarpenak egin ditzaten. Azken mozio hau ere onartua izan zen aldeko 13 bozka eta 3 abstentzioarekin.

Honen ostean, kale garbiketa eta hiri-hondakin solidoak biltzeko kontratu luzapenaren onarpena, eta errefusa eta tamaina handiko hondakinak jasotzeko zerbitzua San Markos Mankomunitateari kudeatzeko mandatua gaiak urgentziaz sartzeko eskaera egin zen eta aho batez onartu zen horien gehitzea. Bestalde, bi proposamen horiek bozkatu zituzten jarraian, eta aldeko 10 boto eta 6 abstentzioarekin, biak onartu ziren.

Bestalde, Udalbatzarreko aurreikusita zegoen 'Kaporala-agente lehena' lanpostu berriari dagokion hizkuntza-eskakizunari eta derrigortasun datari buruzko proposamena mahai gainean uztea proposatu eta onartu zen aldeko 8 bozkarekin, aurkako batekin eta 7 abstentzioarekin.

Blasa Hernandezek eta Maria Dolores Toribiok ehun urte

Jesus Zaballos alkatearen eta Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzuetako zinegotziaren bisita jaso zuten iragan astean

Maidar Azurmendi

"Herrian 100 urte bete dituztenak bisitatzeko lehengo tradizioa erreperatuz", alkatea eta zinegotzia 100 urteen langa gainditu duten bi herritarren etxetara hurbildu ziren. Haiekin

hizketan aritu ondoren, arrosa zurizko lore-sorta bana eman zieten. "Udalak aitormena egin nahi die pertsona horien bizitzari".

Lehenbizi, Blasa Hernandezi bisitatu zuten. Aurten 100 urte bete dituen emakumeak hunkituta

jaso zuen lore-sorta. "Hizketaldi atsegina batean, Blasa bere pasadizoetako batzuk kontatzeko aukera izan zuen. XX. mendearen hasierako bizitza gogor baten istorioak, Salamancako lurretan gertatuak", handik etorri baitzen.

Ondoren, María Dolores Toribioren etxera hurbildu ziren. Aurten 102 urte beteko ditu eta "adore onekoa zegoela erakutsi zuen. Harekin izandako elkarrizketak, agerian jarri zuen bizitza gogor bat, lan eta ahalegin askokoa".



Ehun urtedunei bisita egin zieten herriko udal ordezkariak. TXINTXARRI



Igandean Donostian egingo den manifestaziora joateko deia egin zuen Lasarte-Oriako GuraSOS taldeak. TXINTXARRI

GuraSOSen manifestaziora deia

Iganderako GuraSOSek 'Elkarrekin gehiago gara. Adostasuna, besterik ez!' lemapean Donostian manifestazioa deitu du. 12:00etan Artzai Ona Katedralaren paretik abiatu eta erdigunetik ibilbidea eginda, Bulebarrean bukatuko da.

Maidar Azurmendi

Herriko guraso talde batek agerraldia egin zuen asteazkenean GuraSOSek egingo den manifestazio deialdiarekin bat egin eta herritarrak honetan parte hartzea deitzeko. Honetan adierazi zuten, "Lanbide, jatorri, adin, eta pentsamolde desberdineko pertsonak gara. Baina batez ere, oso kezkatuta gaude gehien maitatzen ditugun pertsonen ongizatearekin eta Gipuzkoaren etorkizunarekin".

Hondakinen gaiari konponbide adostua eman behar zaiola iritzita, "argi dugu horretarako aukerarik onena dela GuraSOS-ek landu eta proposatzen duen bide-orria".

Azaldu zuten, bide-orri honetan "alde guztien adostasuna bilatzen delako, guztiaren gainetik jartzen delako Gipuzkoako giza, natura eta ekonomia-ondarea; interes orokorra zaintzen duelako, alegia, komunitate osoari berezkoa zaion interes multzoa, eta ez, elite edo gutxiengo baten interes partikularra, nahiz eta sinistarazi

nahi bere interes partikularrak denonak direla".

Aldi berean kezka agertu zuten "ez dugu ulertzen zergatik ez dagoen mahaia honetan Gipuzkoako Aldundia, berriro ere gonbidatzen dugu".

Lasarte-Oriako bizilagun guztiak deitu zituzten manifestazioan parte hartzea "garaiz gaude irtenbide adostua lortzeko".

Bide-orria

Bide orriak aipatzen dituen lan ildo nagusiak dira; berehalako erabakia hondakinen kudeaketarako azpiegituren lizitazio eta kontratazio prozesuetan atzera egiteko edo haiek geldiarazteko. Epe laburrera zerbitzua emateko beharrezko diren bitartekoak kontratatzea. Honekin batera, legezkatzea, gizarteratzea, informazioa eta gardentasuna, partaidetza bidezko hausnartze prozesua, osasunaren babesa eta kohesioa, hobeto egokitzea garaiari buruz Europatik datozen politikoei eta akordio eta irtenbide partekatua izan dadila.

Gipuzkoa 4.0 Fabrikazio Aurreratuko Sarea

Lurralde batek industria bultzatzea aberastasuna eta enplegua sortzeko.
Hori ekonomia da.

ORAIN INDUSTRI 4.0
Laugarren industria-iraultzarako prest

ORAIN EKONOMIA

gipuzkoa.eus/industria4-0

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa





Inguruko herrietara jotzen duen jendea egon arren, Lasarte-Orian geratzeko hautua egiten dute herritar askok. TXINTXARRI

Martin Vicioso

Rio de Janeirotik Kanaria Handira, eta Venezuelatik Tolosara. Mundu osoan ospatzen dira inauteriak, tokian tokiko bereizitasun eta ohiturekin.

Karnabalak baino globalagoa den festarik nekez aurki daiteke munduan. Izan ere, gaur egun inauteri bezala ezagutzen dugun ospakizuna antzineko kulturetako ohitura eta errito anitzetatik eratorria da.

Euskal Inauterien jatorriari dagokionez, hipotesi asko daude, pertsonaia mitologiko ezberdinei lotutakoak. Hala ere, munduko beste hainbat toki eta kulturatan bezala, neguaren amaierarekin eta udaberriaren etorrerarekin zerikusi zuzena du.

Mozorrotu eta dantza eta festa egiteko joera orokorra izan arren, helburuak ez dira berdinak izan leku eta garai guztietan.

Noblezia herritarren artean nahasteko jaxten zen Venezian, esaterako. Hala ere, ukalezina da Europako eta Amerikako karnabaletan tradizio kristauak edukitako eragina.

Karnabal hitza bera latinezko 'carnem-levare'-tik eratorria da, hau da, 'haragia uztekin'. Zenbait festa pagano garizumaren etorreraren ospakizunekin nahastu zituzten.

Dena den, kritika sozialerako eta agintarien kontrako protestarako tresna gisa erabili dira historikoki inauteriak. Urteko beste garai batzuetan irmoki debekaturik zutena,

Ba al da inauteri girorik herrian?

Inauteriak gertu ditugu, eta mozoarri azken ukituak ematen ariko zaizkio herritar bat baino gehiago. Lasarte-Oriako karnabal giroa ez da bereziki entzutetsua izan, baina beti egon dira mozorrotu eta festa giroan barneratu diren talde eta koadrilak.

karnabaletan baimenduta zegoen. Permisibitate handiagoa zuten, behintzat.

Eta Lasarte-Orian, zer?

Euskal Herriko eta mundo osoko festak irudikatuko dituzte 2017ko Lasarte-Oriako inauterietan. Hilaren 25ean konpartsek zeharkatuko dute herria, elkarteek eta koadrila ezberdinek osatutako jantzi eta karrozekin. Asteburu honetan, berriz, Euskal Inauteriak ospatuko ditugu. Lehengo urtean egin zen modura, aurten ere zubietarrei harrera egingo zaie Hipodromoko zubian.

GARAI BATEAN, HIRU EGUNETAN MOZORROTZEN JENDEA: OSTIRALETIK IGANDERA

Gipuzkoako eta Euskal Herriko txoko askotan inauteriak oso errotuta, eta jatorri ezberdinetakoak izan arren, ezagunak dira Tolosakoak edota Ituren eta Zubietakoak. Gure herrian hainbeste girorik ez da egon, baina beti eduki ditugu inauteriekin gozatu duten herritarrak.

Lasarte-Oriako parranda giroaz galdetzeko herriko ostalari beteranoengana jo dugu. Mila Insaustiren ustez, "duela 20 edo 30 urte jende gehiago mozorrotzen zen inauterietan". Tabernariaren ustez, garai batekoarekin "ez dago alderatzerik". Ostiraletik igandera mozorrotzen omen zen jendea, "egunero jantzi desberdina erabiliz".

Hala ere, ez dute uste inauterietako giroa bere horretan "okertzen joan denik". Orokorrean, Lasarte-Oriako eta

beste hainbat herritako kaleko bizitzarekin gertatutakoarekin erlazionatzen dute. Izan ere, garai hartan "jende gehiago ateratzen zen" bai kalera, baita tabernetara ere.

Ohiturak aldatuz joan dira, baina karnabalak bizirik mantentzeko borondatea ez dute zapuztu.

Herria, 'unibertso'

Duela urte batzuetatik honera, herriko elkarteek eta Udalak bultzatuta, inauterietan Lasarte-Oria bera mozorretzeko hautua egin zuten.

AZKEN HAMARKADAN LASARTE-ORIAKO INAUTERI GIROA HOBETU DA, HERRITAR BATZUEN USTEZ

Herritarrak mozorrotzera gonbidatzeaz gain, festa egunean herria 'unibertso' moduko batenpean estaltzen da.

Konpartsak eta larunbateko desfilea izan dira azken urteetan inauterietako erakargarri nagusietako bat. Herriari emandako gaiarekin zerikusi zuzena duten mozorroak eta karroza apainduak prestatzeak "beste kolore bat" eman dio Lasarte-Oriako inauteri giroari, herritar batzuen ustez.

Taberna eta saltokiek ere bat egiten dute proposamenarekin, eta lokalak eta langileak gai nagusiaren barneko mozorroak eramaten dituzte; gune bakoitzari bere izaera propioa emanez.

Ondorioz, gaur egungo kale giroa "duela hamar urtekoa baino hobea" da elkarrizketatutako talde eta norbanakoen ustez. Nahiz eta, arestian aipatu bezala, ez iritsi garai batean zegoen horretara.

Etorkizunera begira

Denak puntu batean ados dira: inauteri giroak Lasarte-Orian etorkizunik izan dezan "ezinbestekoa" da ahalik eta herritar gehienen parte hartzea.

Aurten, Euskal Inauteriei indar handiagoa emateko apostua egin dute, festa biharko egunera aurreratuz.

Hurrengo asteko igandera begira, berriz, egitarau berezia prestatu dute. Banakako mozorroen lehiaketa herrikoia egingo dute, lehenengo aldiz, eta musika taldeek girotuko dituzte kaleak goiz eta arratsaldean.

Formatu berriak arrakasta izango duen ala ez galdetuta, "ikusteko" dagoela erantzun dute elkarrizketatu gehienek. Erronka "interesgarria" dela onartu arren, herritarren erantzuna ikusi arte aurreikuspenak egitea "antzua" dela onartu dute.

Jaiarekin gozatzea da karnabaletako helburu nagusia; aldi berean, festaren parte izanda. Ohitura zaharretan oinarrituta egon arren, gaur egun izaera berezi eta berezkoa dute inauteriek.

Lasarte-Oriako talde batzuek beti eduki dute festa hau ospatzeko joera, giro erakargarriak ez zegoenean ere. Haietako batzuekin hitz egin dugu karnabalak nola bizi dituzten edo ospatu izan dituzten azaltzeko.



Txorimalok prestatutako itsasontzi pirata. TXINTXARRI

Herriko gazteen artean karnabalen sua piztuz

Lasarte-Oriako gazteek inauterien 'suspertzearen' aktore garrantzitsua izan dira. Txorimalo gazte asanbladatik eta Sorgin Jaietatik aldarrikapenez jositako konpartsak eta mozorroak landu dituzte urte guzti hauetan.

Zaila da inauteri giro handia duten herriekin lehiatzea, eta batzuetan, lasarteoriatar askok Tolosara edo Donostiara joateko hautua egiten dute karnabaletako larunbatean.

Gazte lasarteoriatarren belaunaldi ezberdinek hori hala izan ez dadin egin dute lan, desfile alternatiboak eginez, bazkari eta afariak antolatuz edota mozorroen eta antzerkiaren bitartez aldarrikapenak bideratuz.

Izan ere, inauterien festak berezkoa duen balio aldarrikatzailea balioan jarri izan dute gazteek. Historian zehar, leku askotan, kritika sozialerako eta agintariekiko desadostasuna erakusteko tresna ere izan baitira.

Txorimalo eta Sorgin Jaiak

Txorimalo Gazte Asanbladako kideak mozorrotzeari ekin zioten 2000ko hamarkadaren hasieran. Gogoan dute, esaterako, Egunkaria itxi zutenekoa: 2003ko otsaila. Inauteriak gertu zirela eta, jantziaren bitartez protesta egitea erabaki zuten. Goardia

Zibilez mozorrotu ziren urte hartan, eta egiazkoak agertu ziren herrian.

Inauteriak urteroko hitzordu bihurtu eta kaleak hartu zituzten pirataz edo estralurtarrez jantzita, esaterako.

"Lasarte-Orian ibiltzen eta ateratzen ginen eta, beraz, naturala zen guretzat herrian bertan mozorrotu eta konpartsa egitea", azaldu dute.

Herriko gazte mugimenduak ekintza ugari bultzatu zituen garai hartan. Inauterietako festaz gain, Multimuskala jaialdiaren eta Sorgin Jaien sorrera ere garai hartakoak dira.

Sorgin Jaien batzordetik ere karnabaletako giroa dinamizatzen saiatu izan dira. Urte askotan, bazkaria antolatu dute sagardotegian. Lehengo urtean, berriz, otordu xumeagoa egiteko erabakia hartu zuten kale Nagusiko aterpetan.

Aurten, ordea, ez dute ekintzarik antolatu, momentuz. Dena den, azaldu dutenez, bazkaririk egin behar balute datorren astean zehar emango lukete jakitera.

"Pozgarria da gazteak atzetik datozeela ikustea"

ZABALETA AUZOLAN ELKARTEA

1998. urtean mozorrotu ziren lehenengo aldiz Zabaleta Auzolaneko kideak. Orditik ez diote hutsik egin urteroko hitzorduari, eta erdigunerako desfileak ez du indarririk galdu.

25 urte beteko ditu aurten Zabaletako auzo elkarteak, eta datorren urtean 20 egingo dituzte lehenengo aldiz konpartsa atera zutenetik.

Azaldu dutenez, "auzotarren partehartzea beti izan da nabarmentzekoa". Hala ere, aitortu dute izan direla urte jendetsuagoak. Izan ere, inauterietako eguraldia ez da da beti lagungarriena izaten, eta ezinbestean, hari daude lotuta.

Auzokideek gogoratzen dute 1998an, mitologia gai hartuta, lehen aldiz mozorrotu zirenekoa. Elkarte eta auzoarentzako gune baten beharra aldarrikatzeko baliatu zuten. "Pentsa, oraindik



Zabaletarren diligentzia. TXINTXARRI

ere eskakizun berarekin jarraitzen dugu", adierazi dute auzokideek.

Inauterietako herriko giroa asko aldatu dela uste dute Zabaleta Auzolaneko lagunek. "Konpartsa atera genuen lehenengotarikoak izan ginen, eta gehienez ere koadrilaka mozorrotzen zen jendea orduan".

Herrian gai orokorra jartzen hasi zirenetik, "giroa hobetu" dela aitortu dute. Hala ere, parte hartzea handiagoa izan daitekeela dute.

"Karnabal giro polita izan nahi badugu, ezinbestekoa da norbanako eta talde askoren inplikazioa", azaldu dute kideek.

Gaur egun, herrian adostutako gaiarekin bat egiten dute, eta beste konpartsekin batera ateratzen dira desfilean. Auzolanen prestatzen dute furgoneta eta norberak bere mozorroa prestatzen du, ondoren. Saiatzen dira osoa edo, gutxienez, elementuren bat beraiek egiten.

Erreleboa bermatuta

Ibilbide luzea egin dute orain arte Zabaleta Auzolan Elkarteko

kideek. 25 urte hauetan jende askok hartu du parte haiek antolatutako ekintzetan.

Auzoan jaio eta hazi diren pertsonez gain, bertara bizitzera etorritakoak gehitu zaizkie, eta hauek ere Zabaletaren dinamizazioan paper garrantzitsua jokatu dute.

Halaber, "pozik" dira auzoko gazteen parte hartzearekin. Hasierako konpartsa horietan ateratzen ziren haurrak dira, gaur egun prestakuntza lanetan aritzen diren gazteak.

"Alde batetik, pozgarria da atzetik gazteak ditugula ikustea, baina nabarmentzekoa da hasieran zegoen jendeak ere bertan jarraitzen duela", diote kideek.

Inauterietan zabaletarren partehartzeak zerikusi zuzena du auzo elkartearen garapenarekin.

Gogoratzen dutenez, Zabaletako jaiak prestatu ondoren edo San Pedroetan atera ekintzaren bat antolatu ondoren, "naturaliki" atera zaien ideia da.

Azken batean, herri edo auzo bezala, batera ateratzeko hitzordu aproposa dira inauteriak.

"Azken urteetan jende gehiago animatzen da"

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA

Urteroko desfile ohikoenetako bat Emakumeen Zentro Zibikoko kideek egiten dute. Mozorroak haiek prestatu, eta koreografia bereziak lantzen dituzte.

2004. urtean sortu zen Lasarte-Oriako Emakumeen Zentro Zibikoa, eta batera egin zuten lehenengo ekintzetako bat Inauterietako mozorroa prestatzea izan zen. Azaldu dutenez, "herriko giroa hilda zegoen garai horretan" eta dinamizatze aldera ideia ona zela pentsatu zuten. Halaber, soilik emakumeek osatutako konpartsa baten sorrerak zuen "indarra" nabarmendu dute.

Gaur egungoa, ordukoarekin alderatuz, hobe ikusten dute. "Azken urteetan ikusi dugu herritar gehiago animatu dela mozorrotzera eta konpartsetan ateratzera". Alde horretatik



2005etik gaur arte ez dute hutsik egin Zentro Zibikoko emakumeek. TXINTXARRI

hobekuntza ikusi badute ere, gogoan dute garai batean intentsitate handiagoz bizi zirela Inauteriak. "Egun gehiagotan mozorrotzen zen jendea" eta mota askotako "tramankulu eta inbentoeekin" ateratzen ziren herritarrek kalera.

Bidean, zerbait okertu zen eta karnabal giroa ahultzen joan zen. Herritar asko Donostiara, Tolosara eta inguruko beste herri batzuetara jotzen hasi zen. Zentro Zibikoko emakumeen ustez, "lasarteoriatarrek, ahal zen heinean, bertan geratzea zen inauterietan ekintza berezia egitearen helburuetako bat".

Etxean egindako mozorroak

Mozorro ezberdinak egin dituzte 2005etik honera. Besteak beste, SuperWoman, Femme Fatale, Bitxiloreak, Gozokiak, Surfariak, 20ko hamarkadako 'charlestonak', behi eta zenenak, brasildarrak, maitagarriak, 60ko hamarkadako emakumeak, antzineko emakumeak eta aurtengo tunoak.

Urtero, mozorroak beraiek egiten dituzte, nahiz eta batzuetan denboraz larri ibiltzeagatik ezin izan duten. Dena den, urte

horietan ere osagarriren bat egiten dute Zentro Zibikoa. Azaldu dutenez, azken urteetan "gaia jakin ahala" jartzen dira lanean, ahalik eta mozorro landuena kaleratu ahal izateko. Aurten tunako kide bihurtuko dira.

Desfilean zehar egiten dituzten dantzen koreografiak ere haiek prestatzen dituzte urtean zehar Zentro Zibikoa.

Alde horretatik, inauteriak ez dituzte soilik urtean asteburu batean bizitzen. Asteroko prestaketa lanen ondorioz, karnalarekin etengabe gozatzeko parada izaten dute Zentro Zibikoko emakumeek.

Etorkizunera begira hobetzeko tartea ikusten dute. Aurten Euskal Inauteriak asteburu bat lehenago egingo dituzte, eta Zentro Zibikoko emakumeen ustez, bi asteetan karnalalax ospatzeak giroa hobe dezake. Halaber, hurrengo asteko igandeko egitarauak asko eman dezakeela uste dute.

Hori bai, jendearen parte hartzea "ezinbestekoa" ikusten dute festak aurrera egitea nahi badu.



Urtero mozorrotu ohi diren koadrila batzuk badaude. TXINTXARRI

Inauterien arima bizirik mantendu dutenak

Lasarte-Orian konpartsa eta desfileek historia handirik ez duten arren, badaude talde eta koadrila batzuk inauteriak betidanik ospatu dituztenak. Seguru aski, haiei esker, besteak beste, hobetu da herriko karnabaletako giroa.

Koadrilarekin batera mozorrotuta ateratzea inauterien pizgarri nagusietako bat izan da, betidanik, festara taldean eta hamaika osagarriekin ateraz. Lagun artean jantzia aukeratzeko eztabaidak luzeak suertatu daitezke batzuetan, urtean behin baitira inauteriak.

Beste herri batzuetan baino karnabal ohitura murriztagoa izan arren, aspalditik mozorrotzeko ohitura izan duten koadrilak badira Lasarte-Orian.

Herriko festa giroa altxatzeko baino, "ongi pasatzeko" eta inauteriak "bizitzeko modua" delako egiten dutela azaltzen dute.

Mozorrotzen zen jende kopuruari erreparatu gabe, "norberarengatik edota ingurkoenatik" egin izan dutela diote beti jantzi diren horietako batzuek. Hala ere, "pozgarria" zaie gero eta jende gehiago ikustea.

Testigu gehienek diotenez, gaur egun duela hamabost urte baino jende gehiago mozorrotzen da Lasarte-Orian. Ezin jakin koadrila hauen eragina zehazki zenbaterainokoa izan den, baina ukazina da urte 'lehor' horietan

herriko giroa alaitzen lagundu zutela.

Talde asko, koadrilaka

Konpartsa bezala egituratu aurretik, herriko talde batzuek desfileak egiten zituzten.

Erketz Dantza Taldekoak, adibidez, aspalditik baliatu dituzte inauteriak batera festara ateratzeko. Esaterako, 100 lagun baino gehiago batu ziren Asterix eta Obelixetaz mozorrotu ziren urtean. Dantza eskolako umeen partehartzeari esker desfile handia antolatzen zuten, koreografiak eta guzti. Gaur egun, planteamendu "lasaiagoa" egiten dute.

Urte batzuetan, inauterietan ezer berezirik egiteari utzi ondoren, koadrila bezala ateratzen hasi ziren. Pixkanaka, jende gehiago batu zitzairen eta desfileak konpartsa egiten dituztenetik bertan ateratzen dira. Haiek bezala, herriko talde asko animatu dira azken urteetan euren karroza edo konpartsa ateratzera. "Ez, agian, Donostian egiten duten irmotasun edo solemnitaterekin", baina bai festa giroan gozatzeko asmoarekin.



Euskal Inauteriei buruzko gogoeta

DAVID EGIZABAL EUSKAL INAUTERIEN ANTOLAKUNTZAKO KIDEA

Urtero legez, hemen dira inauteriak. Inauteriek bere barnean gordetzen duten sinbolismoak liluratuta, iaz, egitasmo berri bat abiatu genuen Lasarte-Orian Zubietarren laguntzarekin batera. Aintzinatik datorkigun ohitura balioan jartzea da gure erronka nagusia. Aldi berean, nabarmendu nahi dugu bere oinarrian garrantzi handiko ospakizunak zirela inauteriak, bere ezaugarri erritualengatik, behinik behin.

Gaur egungo izaera ludikotik urrun. Jakintza mota baten ondorioz egituratu zirela azpimarratu nahi dugu: Ziripot,

Zaldikoak, Txantxoak, Kokomarruak, Kamarroak, Trapujaleak, Kaskaboboak, Zapzuzaharrak, Zarramuskerok eta horiek denak garai hartako jakintzaren islada zirela.

Ez da, inondik inora, erronka erraza. Izan ere, inauterien inguruan hipotesi asko dago eta zaila da jakitea zein den zuzenena. Bai, agian, zeinek azaltzen duen modurik garbienean inauteri ezberdinetan antzeman daitezkeen komuneko elementu horiek. Jakinda xehetasun guztiak ehuneko ehunean azaldu ditzakeen teoriarik ez dagoela, noski.

Inauteri bakoitzak bere ezaugarriak ditu; desberdinak, baina aldi berean, elkarren artean elementuak konpartitzen

dituztenak. Iturri berdinetik edan izan balute bezala.

Hori izan da Lasarte-Oriako Euskal Inauterien abiapuntua. Inauteri ezberdinen elementuak eta erritoak ezagutzen ditugu. Esanahiak, ziur aski, ez; baina hipotesiak bai. Zergatik ez egin Euskal Inauteri tradizioaletan oinarritutako Euskal Inauteri eguneratu berria? Helburu zehatzarekin. Batetik, inauteri tradizionaleko ustezko mitoekin bat egingo duten elementuekin eta, bestetik, egungo "mito"-ekin bat egingo dutenekin.

Egitasmo handia. Handiegia agian. Baina, gure ustez, zirrargarria dena. Arriskuak daude? Bai, horixe. Inauteri desitxuratu bat osa dezakegu. Hori izan daiteke akatsik larriena eta, horregatik,

emango ditugun urratsak poliki eman beharko ditugu ikuspegia ez galtzarren. Egitasmo honek urtetako ibilbidea beharko du, urtetik urtera elementuak txertatuz; ikusiz alde aurretik azaldutako helburutik gerturatu edo alendu gaituzten.

Laster dira inauteriak. Eta edozein istoriok edota mitok bezala, badu hasiera bat...

"Otsailak 18, alkateak bere jantzi dotoreena prestatu eta gero, herriko mugara abiatu da. Gaur, herriko mugan bilkura inportantea du. Hitzarmena adostu ezean, kalamidade latzenak jauziko dira herriaren gainean. Bilkura horren arabera, urte oparoa edo urte gorria izango da".

EUSKAL INAUTERIAK

OTSAILAK 18 • LASARTE-ORIA

11:00-13:00// Sagardotegi kaletik abiatuta, Elkarteetan zehar **PUSKA BILA**
16:00// Zubietako plazan **ekitaldia**
16:15// Zubietatik Okendora **KALEJIRA**
16:30// Lasarteoriatarren **HARRERA:**
 Lasarteoriatarren gonbidapen dantza eta zubietarren erantzuna
17:00// Zubietarren eta lasarteoriatarren **SENIDETZE DANTZALDIA**
17:30// **Kalejira** herritik
18:30// **Erromeria eta suaren ekitaldi** berritua
 Amaitzeko, **txokolatada** goxoa plazan
21:00// Irakurle txokoaren eskutik **bertso-afari literarioa**,
 Xirimiri elkarteetan: Eider Rodriguez, Uxue Alberdi, Maialen Lujanbio eta Ane Labaka.




Jardunaldi borobila Intza KEko seniorrentzat

Michelingo pilotalekuan aritu ziren Intza KEko bi bikote seniorrak larunbatean. Euskal Herriko Kluben ligan ari diren Artetxe eta Elolak 22-1 garaitu zuten Txukun Lakua. Udaberrikoan berriz, 22-20 nagusitu ziren Arteaga eta Solano, Izurunen aurka.

Iñigo Gonzalez

Jon Pello Artetxe eta Mikel Elola aise nagusitu ziren larunbatean Txukun Lakuako bikotearen aurka jokaturako neurketan. Hasiera-hasieratik nagusitu ziren Michelingo frontoian, eta ez zieten aukerarik eman arerioei.

Konturatzerako, herritarrak 9-0 aurreratu ziren markagailuan. Artetxeren sake zitalak, Txukun Lakuakoek ahal bezala erantzun zituzten pilotakadak tanto bihurtu aurreko koadroetan, eta, behar izan zenean, Mikel Elolaren nagusitasuna atzean. Hiru osagai horiek erabili zituzten Intzako pilotariak aurkariak mendean hartzeko. Bigarren garaipena dute Euskal Herriko Kluben Ligan.

Udaberrikoan ere garaile

Partidu hori baino lehenago, Udaberri txapelketakoaz gozatu zuten frontoira bertaratutakoek. Landutako garaipena bildu zuten Xabier Arteagak eta Aritz




Intza KEk 22-20 garaitu zuten Izurun Udaberriko txapelketan. TXINTXARRI

Solanok. Gogotik ospatu zuten, Arteagak batez ere: hiru urte eta gero, kantxetara itzuli da.

Herritarrak hasi ziren agintzen, 11-5 aurrerateraino, baina buelta eman zion Izurunek; 11-12. Halere, Intzak lanean jarraitu eta hobeto aritu zen tanto erabakigarrietan. Azkenean, 22-20.

Arteaga eta Erasunen porrota

Herritarrak eta zizurkildarrak ezin izan zuten bolada onarekin jarraitu, eta 11-22 galdu zuten Elordi eta Erostarberen kontra Urdulizen (Bizkaia). Ligaxka ixteko bi jardunaldiren faltan, hiru partidu irabazi eta bi galdu dituzte Arteagak eta Erasunek.



Euskadiko selekzioarekin aritu zen asteburuan Leire Martin. BURUNTZALDEA IKT.

Bikain aritu zen Leire Martin Erkidego Arteko Txapelketan

Hiru frogetan lehiatu zen Leire Martin Euskadiko selekzioarekin eta marka bikainak lortu zituen

Martin Vicioso

Castellón lehiatu zuten pasa den asteburuan Espainiako Autonomia Arteko Txapelketa. Buruntzaldea IKTko Leire Martin Euskadiko selekzioak deitua egin zuen igeri bertan, eta harro egoteko moduko emaitzak lortu zituen.

Infantil mailako igerilariak aurretik ezarritako errekor pertsonalak hausteaz gain, taldekoak ere hobetu zituen parte hartu zuen hiru frogetan.

Larunbatean 200 metro bizkarrean lehiatu zen, 2:27:13ko kronoa eginez. Zortzigarren postua eskuratu zuen,

taldearentzat puntu baliosuak lortuz. Igandean 800 libre eta 400 estiloetan egin zuen igeri. 14. eta 8. bukatu zuen, hurrenez hurren.

Asteburu honetan, Buruntzaldea IKTko beste kideekin batera Neguko Txapelketan ariko da.

50 metroko frogara

Legazpiko Bikuña igerilekuan benjaminen eta alebinen 50 metroko frogako finalak jokatu ziren. Buruntzaldea IKTko 11 igerilari hartu zuten parte eta Unai G. Somovillak eta Aintzane Sarobek domina eskuratu zuten.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
KADETEEN 1GO MAILA, KOPA
Ostadar SKT 'A' - Billabona Larunbata. 10:00. Michelin.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Touring KE Larunbata. 12:00. Michelin.
EMAKUMEEN LURRALDE MAILA, IGOERA FASEA
Anaitasuna CD - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. San Juan, Azkoitia
JUBENILEN 1GOA, IGOERA FASEA
Ostadar SKT - Burumendi FG Larunbata. 15:30. Michelin
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Pasaia KE Igandea. 12:10. Michelin
ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA
Aretxabaleta KE - Ostadar SKT Igandea. 16:30. Ibarra, Aretxabaleta.

ARETO-FUTBOLA
HERRIKO TXAPELKETA
Urdaneta H.K. - Kebab Taberna Ostirala. 19:45. Kirolgunea.
Izkiña - Ilargi Ostirala. 20:45. Kirolgunea.
Reformas Lagunak - Trumoi Larunbata. 09:30. Kirolgunea.
Kattagorri Insausti - Viña del Mar Larunbata. 10:30. Kirolgunea.
Indaux - Aiso Larunbata. 11:30. Kirolgunea.
Aita Amari Taberna - Ibaros Latino Larunbata. 12:30. Kirolgunea.
GIPUZKOAKO 1GO MAILA
Egarri Taberna - Cecilia Kebab Ostadar Ostirala. 20:30. Olaederra kiroldegia, Ibarra.
ISU Leihoak - Power Rangers Larunbata. 15:30. Maialen Chourraut Kiroldegia.

GIPUZKOAKO JUBENILEN MAILA
Lasarte Kafe Bar - Laskorain Larunbata. 10:00. M.Chourraut kiroldegia.
Goierri KE - Kafe Buenetxea Larunbata. 11:00. Aldiri, Urretxu.
PILOTA
BINAKAKO PROMOZIO TXAPELKETA
Arteaga II/Erasun - Peña II/I. Zabala Larunbata. 22:00. Intxaur pilotalekua, Zizurkil
EUSKAL HERRIKO KLUBEN LIGA
Amurrio 2 - Intza KE Igandea. 11:30. Amurrioko pilotalekua.
SASKIBALOIA
SENIOR GIZONAK, 3. PROBINTZIALA
Ostadar SKT - Katu Kale Ostirala. 20:30. Maialen Chourraut Kiroldegia.
ERRENDIMENDUKO KADETEAK
Movilteck ISB - Ostadar SKT Larunbata. 09:00. Azpeitia kiroldegia, Azpeitia.

ERRENDIMENDUKO JUNIOR NESKAK
Ostadar SKT 'B' - Aeluvasa Oiarso Larunbata. 18:00. M.Chourraut kiroldegia.
Ostadar SKT 'A' - Goierri Igandea. 09:30. M.Chourraut kiroldegia.
SENIOR EMAKUMEZKOAK, 1. PROBINTZIALA
Ostadar SKT - Astigarragako Mundarro Igandea. 11:00. M.Chourraut Kiroldegia.
PARTIZIPAZIOKO KADETEAK
Ostadar SKT - Añorga Saskibaloia Igandea. 12:00. M.Chourraut Kiroldegia.
IGERIKETA
GIPUZKOAKO NEGUKO TXAPELKETA
Buruntzaldea IKTko igerilari infantil, junior, senior eta promesak Gipuzkoako Neguko Kopa jokatu dute. Larunbata eta igandea, Azpeitia

IGERIKETA EGOKITUA, GIPUZKOAKO
Nahia Zudairek Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute Larunbata, 10:00. Usabal, Tolosa
ATLETISMOA
PISTA ESTALIA, ABSOLUTUAK
Maria Eugi eta Eneritz Busto absolutu mailako Espainiako Txapelketa lehiatuko dute Larunbata. 09:00. Salamanca.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Babyauto Zarautz - Crat A Coruña Igandea. 12:00. Asti, Zarautz.
18 URTE AZPIKOEN LIGA
Gure Etxea Beltzak - Hernani RT Larunbata. 11:00. Asti, Zarautz.
16 URTE AZPIKOEN LIGA
Gure Etxea Beltzak - Hernani RT Larunbata. 14:00. Asti, Zarautz.



Bost traineru utzi zituen atzetik Donostiarrak bere lehenengo estropadan. ARITZ MUTIOZABAL/UROLA KOSTAKO HITZA

Lehenengo arraunkadak erronka berriari

Donostiarra traineruarekin egin zuen debuta pasa den asteburuan Intza Fernandez arraunlari lasarteoriatarrek. Talde berria izanik, gustura da lortutako emaitzarekin, bost traineru utzi baitzituzten atzean.

Martin Vicioso

Arraun denboraldia bere onenean hasteko hilabeteak falta dira oraindik, baina pixkanaka motorrak berotzen doaz Kantauri itsasaldeko traineru guztiak.

Aurten, lehenengo aldiz, Donostiarrak koadrila aterako du emakumezkoen ligan. Bertan da Intza Fernandez lasarteoriatarra, pasa den urtean Getaria-Zarautz taldeko arraunlaria izandakoa, eta haiekin Kontxa lehiatutakoa.

Oriako jaitsiera

Urteko froga goiztiarrenetakoa izan ohi da Oriako jaitsiera, eta larunbatean jokatu zen aurtengo edizioa. Hirugarrenez, emakumezkoen traineruek ere lehiatu zuten Babyauto Ikurrina, Saikolatik Oriorako 4 kilometroko ibilbidean.

"Espero baino hobeto" joan zitzaion Donostiarrako arraunlariei, Intza Fernandezek ustez. Izan ere, talde "osatu berria" dira; gehiengoa "oso gaztea". Hamabigarren

denborarik onena egin zuten donostiarrak, irabazle Hibaikak baino 01:01,39 minutu motelago.

Bost traineru atzean utzi izanak "hobetzeko oinarria" badutela erakusten du, arraunlari lasarteoriatarren ustez.

Liga, ekainean

Udara iritsi bitartean, estropada eta jaitsiera batzuk lehiatuko dituzten arren, erronka nagusiari ekaina aldera ekingo diote. Gipuzkoako Ligan arituko da Donostiarra, lehenengo urtez.

Emakumezkoen maila nagusirako, Euskotren Ligarako, sailkatzea "zaila" ikusten du Intza Fernandezek. Bere ustez, "maila handia" dute puntako traineruek. Dena den, talde hasiberria diren heinean,

**LEHENENGO ALDIZ
KOADRILA ATERA DU
DONOSTIARRAK ETA
EUREKIN LEHIATUKO
DA INTZA FERNANDEZ**

"garrantzitsuena urrats sendoak ematen jarraitzea" dela diote.


Pixkanaka hobetuz

Denboraldi ona egin zuen pasa den urtean Intza Fernandezek Getaria-Zarautz taldean. Besteak beste, Kontxako Banderarako sailkatu eta ohorezko txandan arraun egiteko aukera izan zuten.

Aurten Getaria-Zarautz taldeak trainerua atera izanez gero, Euskotren Ligara sailkatzeko "aukera garbia" ikusten zuen Fernandezek. Alde horretatik, "berriro ere zerotik hastea" dela aitortu du. Hala ere, "animoz lepo" daude bai bera baita taldekideak ere.

"Lanean jarraitzea eta hobetzea" dira Donostiarrako arraunlariaren erronkak, "pixkanaka kirol helburuak gaintuz".

2017ko estropada luze honi lehenengo arraunkadak eman dizkiote, iparra galdu gabe: Irailean Kontxako Badiara ahalik eta sendoen ailegatzea.



Maria Eugi, eskuinean, brontzezko dominarekin. MARIA EUGI

Maria Eugi hirugarren Espainiako Etorkizun Txapelketan

200 metroko frogan hirugarren izan zen Atletico San Sebastian taldeko korrikalari lasarteoriatarra

Martin Vicioso

Bilasarteoriatarrek hartu zuten parte asteburuan Madrilen jokaturako atletismoko Espainiako Etorkizun Txapelketan. 200 metroko lasterketan hirugarren geratu zen Maria Eugi eta jauzi hirukoitzean lehiatu zen Ane Galardi.

Aurkari gogorak izan zituen aurrean Eugik. Izan ere, podiumeko lehenengo bi kosketara igo ziren Cristina Lara kataluniarrak eta Paula Sevilla gaztelarrak aurretik ezarritako Txapelketako markarik onenak hautsi zituzten.

Lasarteoriatarrek, berriz, 24.83 segunduko marka egin zuen finalean, irabazleak baino segundu eskas motelago.

Jauzi hirukoitzeko frogan ez zuen zorte handirik izan LOKE taldeko Ane Galardik, eta ezin izan zuen baleko markarik ezarri.

Absolutu mailako Txapelketa

Bihartik aurrera beste erronka bat edukiko dute atleta lasarteoriatarrek. Maria Eugi 200 eta 60 metroko lasterketan lehiatuko da, eta LOKEko Eneritz Bustok, berriz, 60 metro hesietan hartuko du parte.



IDK EASO

Navarro ahizpak Mini Kopan

Zilarrezko domina lortu zuten IDK Easo taldean jokatu duten Garazi eta Judith Navarrok Erreginaren Mini Kopan. Emakumezkoen Saskibaloiko Ligako 12 talde onenen harrobiak lehiatu ziren, eta IDK Gipuzkoa-ren gazte taldean dira bi lasarteoriatarrek. Txapelketa txukuna egin ostean, Stadium Casablancaren aurka galdu zuten finala.



Violeta Gonzalez bizkaitarrak (eskubian) debuta egin zuen profesional mailan, Katherine Quintanaren aurka. TXINTXARRI

Parekidetasuna boxeo ringetik aldarrikatzen

Boxeoa Lasarte-Oriara bueltatu da bi hamarkada pasatxo eta gero: parekidetasunaren aldeko lehenengo Boxeo Masterra jokatu zen joan den larunbatean: sei borrokaldi interesgarri gozatu zuten ikusleek harmailetan eta ringa inguratzen zuten ilaretan.

Iñigo Gonzalez

Ez daitezela boxeorik gabeko beste 22 urte igaro herrian. Hori pentsatuko zuten iragan larunbateko ekitaldiaz gozatzera animatu ziren ikusleek, Maialen Chourraut Udal Kiroldegiko ring inprobisatua jokatu ziren sei borrokaldien ostean. Horietako hiru emakumeen artekoak izan ziren, eta beste hiruak,

gizonezkoen artekoak. Lasarte-Oria izan zen Parekidetasunaren aldeko Boxeo Masterraren lehen edizioaren topagune. Neska Box taldeak antolatu zuen kirol ekitaldia eta herrira ekartzeko apustua egin Udalak.

Ikusmira sortu zuen boxeogauak herrian: berrehundik gora ikusle bertaratu ziren. Ordezkaritza instituzionalak ere bai:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol zuzendari Goizane Alvarez edota Udaleko kirol zinegotzi Txus Alonso, besteak beste.

Violeta Gonzalezen debuta

Borrokaldi-ordenean azkenekoa izan zen Violeta Gonzalez bizkaitarra eta Katherine Quintana venezuelar jatorriko valentziarraren artekoa, baina

hortik hastera komeni. 2013. urtean amateur mailako Espainiako txapelketa izandako Violeta Gonzalezek profesional mailan debuta egin zuen, irabaziz, gainera. Hori bai, gogotik izerditu behar izan zuen Quintana mendean hartzeko. Bi minutuko lau round jokatu zituzten biek. Lehenengo hiruetan batak bestea neurtu zuen, borrokatzeko era ikertu, eta laugarrenarako utzi zuten dena. Intentsitate handiko bi minutu izan ziren, biek dena utzi zuten ring gainean eta garaipenaren bila joan. Azkenean, epaileak ebatzi zuen Gonzalezek merezi zuela irabaztea, puntuetara. Ezin hobeto ekin zion ibilbide berriari bizkaitarrak.

Gonzalez eta Quintanaren artekoa baino lehen, Ooreretako Sebas 'Latigo' Perez eta Edwin Tellez nikaraguarra aritu ziren udal kiroldegiko ring inprobisatua.

Boxeolari gipuzkoar gaztea arerioa baino hobeto aritu zen lau roundetan zehar. Ezizenari ohore eginez, kolpe azkarrak eta gogorak ematen zituen. Tellez ere gogor aritu zen, Perezen kolpeak saihesten eta ahal zuenean erasotzen. Halere, round guztietan gipuzkoarra izan zen nagusi, eta hala ikusi zuen epaileak ere: puntuetara, garaipena Latigorentzat. Profesional ibilbidea hasi zuenetik seigarren aldiz lehiatu zen atzo, eta beste hainbeste aldiz irabazi du.

Lehia hori bukatu eta gero, Latigok omendu zuen ospitalean dagoen Saul Tejada boxeolaria, bere izena zeraman zinta buruan jantzita. Violeta Gonzalez eta Katherine Quintanaren arteko lehia hasi aurretik more koloreko animo-kartel bat ere erakutsi zuten Neska Box taldekoek.

Lau borrokaldi amateur

Maila ederrean aritu ziren amateur mailako zortzi borrokalariak ere: Eñaut Basasoro, Lander Kanpo, Patricia Yubero, Andrea Barrio, Xabi Burgueño, Fermin Vargas, Eneritz Borinaga eta Alba Ortiz. Hiru minutuko hiruna round jokatu zituzten guztiek euren borrokaldietan. Ekitaldiaren antolatzaile Neska Box taldean aritzen dira Patricia Yubero (gaur egungo Euskadiko txapelketa) eta Eneritz Borinaga (brontzeko domina kolkoratu zuen Espainiakoan).

Puntuetara erabaki ziren lau borrokaldiak. Eñaut Basasoro gipuzkoarra Lander Kanpo bizkaitarrari gailendu zitzaion; Patricia Yubero bizkaitarra Andrea Barrio madrildarrari; Xabi Burgueño gipuzkoarra Fermin Vargas madrildarrari; eta Eneritz Borinaga bizkaitarra, Alba Ortiz mallorkarrari.

Parekidetasuna aldarri

Txema Valles kazetariak eman zuen datuaren berri: azkenekoz, duela 22 urte ikusi ahal izan zuten boxeoa zuzenean lasarteoriatarrek. Jesus Alba boxeolari herritarra zenari egindako omenaldian, 1994ko San Pedro jaietan, uztailen.

Bi hamarkada eta gero boxeogiroa arnastu zen berriro, eta kirol-parekidetasunaren aldeko aldarri ozena entzun ere bai. Kasu honetan, esan bezala, boxeo ring batetik.

22 URTE ETA GERO, BOXEOA HERRIRA BUELTATU ZEN; 200 IKUSLETIK GORA BERTARATU ZIREN

Martxa solidarioa

Ostadar SKTren Ipar Martxa alorreko kideek ASPANOgi Haur Minbizidunen Guraso Elkarteak antolatutako 5. Martxa Solidarioarekin egin zuten bat joan den igandean. Zurriolatik abiatu eta Haizeen Orrazira artekoa izan zen ibilbidea, sei kilometrokoa. Ipar Martxako kideek talde argazkia atera zuten bukaeran, Porrotx pailazoarekin batera.



OSTADAR IPAR MARTXA

Judoka kadeteak primeran Gipuzkoako txapelketan

Talib Vergarak eta Eneko Eizagirrek urrezko dominak kolkoratu zituzten, pasa den asteburuan Hernanin jokaturako kadete kategoriako Gipuzkoako txapelketan. Horrez gain, Ander Garridok eta Yeray Mendibek zilarrezko dominak irabazi zituzten. Unai Posadak ere lortu zuen domina janztea; brontzea irabazi zuen.

Buruntz Azpik ehiza txapelketa egingo du martxoaren 5ean


Buruntza mendian eta inguruetan ehiza txapelketa egingo du Buruntz Azpi elkarteak martxoaren 5ean, 09:00etan hasi eta 13:00etara arte.

Parte hartu nahi dutenek elkartearen eman beharko dute izena martxoaren 3a baino lehen. Bestalde, asteazkeneko arrantza-lizentziak ateratzen ditu elkarteak, 19:00etatik 20:30era.


ZORION AGURRAK




Bea
Zorionak txapelduna!
40 urte zoragarriak!
Segi horrela! Zure
lagunaren partetik...
muxus!!!



Oier
Zorionak maitia zure
13. urtebetetzean!
muxu pila familia
guztiaren partetik.



Hodei
Zorionak familia
guztiaren partez.
Besarkada handi bat!



Irati
Zorionak preioxia! 8
muxu potolo familiaren
partetik!!




Uxue
Zorionak, maitea, zure
8. urtebetetzean. Muxu
handi bat gurasoen
partetik!




Judith eta Esther
Zorionak osaba Gonzaloren partez. Muxu bat eta
mila irribarre.



Josune eta Markel
Zorionak bikote muxu handi bat familiaren
partetik!!!



Alain
Zorionak Alain!!! Famili
guztiaren partetik
etxeko txikiarentzat.
Txokolatzeko muxu
goxoak. Muxuak



Jon Pello
Zorionak!!! Ondo ondo
ospatu eguna eta
gogoratu astelehenean
hamaiketako zure
kontu

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta
senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurra eta *Bidali*
zure *zorion agurra* formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan
argitaratuko da webgunean eta
ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta
idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-
eguna eta nahi duzun testua. Ez
ahaztu irudia atxikitzeaz.

SUDOKUA

2		1			8		
			8			5	9
6	5						
						3	
1	4		9	6	2		5
			4	1			
3	2						
			5		7	9	1

GUTUNA

Aralar eta bizikidetzaren alde!**NATURKON**

Aralarren inguruan eztabaida zabaldu da, Enirio-Aralar mankomunitateak, Foru Aldundiak emandako 2.000.000 euroekin onartutako pista proiektuengatik. Natura-Parkearen kudeaketaren arduraduna Foru Aldundia da eta Aralarko ordenazio planaren arabera, natur baliabideak babestu, kontserbatu, leheneratu eta hobetu beharko lituzke, bereziki, natur guneak eta flora eta fauna basatiak. Jakin badakigu bi larre mota Europa Batasunaren intereseko habitata direla baina kudeaketa osoa ez da horien baitan egin behar.

Etengabe Aralar Natura-Parkea dela adieraztea saihesten ari da Aldundia eta bestela, artzain eta ganaduzaleen erabilpenari esker natur parkea dela esaten, eta hori

ez da guztiz egia, Aralarren, basoak, larreak, harkaiztegiak, errekek... egoera nahiko naturalean daudelako, eta beren paisaien kalitatearengatik izendatu zutelako natur parkea 1994an. Eta horregatik, bertako jarduera ekonomikoak eta erabilerak, natur ondarearen kontserbazioarekin bateragarria izango den kudeaketa ereduaren bidez antolatu behar dira.

Aranzadi Zientzia Elkarteak, Aralarri buruz ezagutza zientifiko gehien duen taldearen irizpideak ere ez ditu aintzat hartu nahi Aldundiak, orain dela hamahiru urte kontuan hartu ziren bezala, hain zuzen antzeko pista proiektua gelditu zelarik. Orduan, Legebiltzar osoak onartu zuen pista berriak eraikitzeke plana desegokia zela Natura-Parkearen helburuak betetzeko baina proposatutako alternatibak adostu eta aurrera ez dira eraman. Pista proiektua

gauzatz gero, ez du bermatuko abeltzaintzaren etorkizuna eta Aralar Natura-Parkean ondorio konponezinak sortuko lituzke.

Aldundiak eta Mankomunitateak beste eragileen iritzia eta irizpideak ere ez dituzte kontuan hartu, mendizale, naturzale, ekologista, ornitologo... Berriz, auzi honetan batzuen interesak bakarrik kontuan hartzen ari dira, artzain eta ganaduzaleenak, parkearen izaera arriskuan jarriz eta epe luzera, artzaintza eta abeltzaintzarena ere bai, lurzuaren higadura areagotzeagatik. Horrez gain, Aldundiak azken urtean Aralarko patronatua, ez du deitu ezta bildu urteko aurrekontua eta ekintzak onartzeko. Beraz, oso larria iruditzen zaigu Aldundiaren jokaera. Orain gutxi, 2016an, eraikitako Intzensao-Goroskintxu pistan ez da egin Ebaluazio Inpaktuko Azterketa sinplifikatua

agindutako ezpona eta betelaneetako behar bezalako landareztatzerik eta higadura larria ematen ari da zenbait gunetan, abereek hankekin ezpona eta betelaneetako lurra urratzeagatik.

Artzaintza eta abeltzaintza ekologikoa bultzatu behar direla uste dugu, beti ere, parkearen arauak onartzu eta legeak betez. Baina lehendabizi gaur egungo egoera osotasunean hartuta aztertu behar da eta datuak publikoak egin, eta natur baliabideak babesteko neurriak hartzen direla ziurtatu. Eta ondoren partaidetza prozesua ireki sektore ezberdinen artean Aralarko Natura-Parkearen kudeaketak etorkizun bideragarria berma dezan, horretan Aldundiak bidelagun izango gaituelarik. Eta gogoratzen diogu, badituela tresnak hori egiteko, esaterako aurreko legealdian sortutako Bioaniztasunaren mahaia.

Horrek guztiak lagunduko luke, auzi honen inguruan Aralarko herrietan bizi den tentsio jasanezina desagerrarazten eta bizikidetzaren berreskuratzen ere. Izan ere, ez dira une gozoak izaten ari herritar askorentzat eta horren adierazgarri nagusia bihurtu da otsailaren 4an Gailurrerantz mendi elkarrekin Oiduin kudeatzen duen bordaren erretzea. Halako ekimenak lekuz kanpo daudela berresten dugu eta Aldundiari gatazka hau bideratzeko eskatzen diogu, eta bere betebeharrak aurrera eramateko, ondare naturala kontserbatu nahiz berreskuratzea, natura-parkearen erabilera baliabideetara egokitzea, babestutako espezie edo/eta habitaten egoera babestu eta hobetzea... Azkenean Aralarko Natura-Parkearen eta Natura 2000ko Sarearen arauak, betebeharrak aurrera eramatea.

AZOKA TXIKIA

1. ETXEBIZITZA

101. SALDU
Herri batean etxea salgai 40.000 euro. Informazio gehiago eskuratzeko deitu 663 515 265 zenbakira.

Babes ofizialeko etxe argitsua saltzen da Basaundi auzoko Txartel kalean, 177.090euroren truke (garaje marra eta trastelekua barne).

Informazio gehiagorako 665 709 680

2. LANA

202. ESKAERA
Emakumea eskaintzen da pertsona adinduak zaintzeko gauzez. 619 803 199.

Emakumea eskaintzen da umeak edo pertsona adinduak zaintzeko. 675 830 206. Johana.

Haur Hezkuntza titulua duen neska eskaintzen da umeak zaintzeko. 695 753 292. Maria

Emakume arduratsua eskaintzen da lanaldi erdiz helduak zaintzeko. Arreta Soziosanitarioan tituluduna. 673 381 470

Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko, pertsona helduak zaintzeko, gauzez lan egin edo haurrak zaintzeko.

Garbiketa lanak ere egiteko prest, baita sukalde laguntzaile lanetan aritzeko ere. Gloria 648 198 456

Emakumea eskaintzen da gauetan pertsona helduak zaintzeko. Vilma. 634278198


402. EMAN

Euskara edo ingelesa irakasten dut. Ekonomikoa. 600 766 068

403. JASO

Euskara klaseak jaso nahiko nituzke irakasle partikularrekin. Brenda. 693 299 302

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

Kotxerak	Antxisu	Institutoa	Antxisu
07:40*	07:45*	07:50*	07:55*

*Eskola egunetan

JAIOTAKOAK

Sara Garcia Alonso. Otsailaren 8an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 17 DE MIGUEL
Larunbata, 18 ORUE
Igandea, 19 ORUE
Astelehena, 20 LASA
Asteartea, 21 ORUE
Asteazkena, 22 ACHA-ORBEA
Osteguna, 23 URBISTONDO

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.colgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKIJONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZAK: 943 288 888
SOS DEIAK: 112

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO: Txintxarri erredakzioan 943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80 €

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa

Maidier Azurmendi,
Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega,
Martin Vicioso.

Publizitatea

Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odrizola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galarzi.

Informatikoa

Xabier Amadoz.

Administrataria

Arkaitz Urdapilleta.

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALAK

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 17

ANDOAIN Kontzertua

Anari taldeak onezkerok 6 diska eta kontzertu pila daramatza soinean. Anari Alberdi azkoitiarrarekin batera, Borja Iglesias (gitarra), Drake (bajua), Mariano Hurtado (piano eta teklatura) eta Mikel Txopeitiak (bateria) osatzen dute talde hau. 'Epilogo Bat', aurkeztu duten azken lanean oinarritutako kontzertua. Sarrera 12 euro. *Bastero, 21:30ean.*

HERNANI Bertso saioa

'Bertso Gutziak' saioa eta afari-merienda berezia. Bertsotan ariko dira Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Unai Agirre eta Iker Zubeldia; eta Aitor Mendiluze izango dute gai-jartzaile. Basque Culinary Centerreko ikasleek prestatutako jaki goxoekin afari-merienda egiteko aukera izango da segidan. Handik Hernanira bueltatzeko, autobusa jarriko du Kronikak doan, 23:30etan. Sarrerak 20 euro. *Basque Culinary Center, 19:00etan.*

LARUNBATA 18

LASARTE-ORIA Bertso Afari Literarioa

Bertso-afari literarioa antolatuta du Lasarte-Oriako literatur txokoak. Hirugarren urtea da eta aurtengoan bertsolariak honako hauek dira: Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Ane Labaka. Gai-jartzaile lanetan Eider Rodriguez izango da. *Xirimiri, 21:00etan.*

HERNANI Antzerkia

'Gu' antzezlan eskainiko du Borobil taldeak. 5 urtetik gorako haurrei zuzenduta dago. *Biteri, 12:00etan.*

IGANDEA 19

HERNANI Kontzertua

Musika Bandak ohiko inauterietako kontzertua eskainiko du. *Udaletxeko arkupeak, 13:00etan.*

**LASARTE-ORIA Euskal Inauteriak.**

Berrikuntza asko izango dute Euskal Inauteriek. Lehenengo aldiz, 11:00etan hasita erdiguneko elkarteetatik 'Puska Bila' aterako dira dantzariak 13:00ak arte. 16:00etan Zubietako plazatik abiatuko da Okendora. *Larunbata 18, Zubietako Okendo egun osoz.*

ASTELEHENA 20

LASARTE-ORIA Itsaspeko Zine Zikloa

Daniel Aldayaren 'Angelita' filma eskainiko da. Hau amaituta, Guillaume Vinceneren 'La Comquete des Oceans' filmaren bigarren zatia eskainiko dute, eta jarraian Erick Higuieraren 'Fisterra', Carlos Villocheren 'Raja Empat Reefs', eta Jose L. Huertosen 'Expedicion Wallacea'. Doan.

Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Ipuin kontalaria

Amarau Klubak antolatuta, ipuinaren ordua. HH3 eta HH4ko haurrei zuzendutako saio berezia da emozioen inguruan lanketa egiteko. Aurrez izena eman behar da Ttakun Kultur Elkartearen egoitzan. Doan.

Villa Mirentxu, 17:30ean.

ASTIGARRAGA Hitzaldia

Su Hernandezek, 'Ongi etorri errefuxiatuak' Gipuzkoako elkarteko kideak iazko udan izandako bizpenak eta gaur egun errefuxiatuek bizi duten egoeraz hitz egingo du. Sarrera irekia izango da. *Kultur etxea, 18:30ean.*

ASTEARTEA 21

HERNANI Literatur solasaldia

Xabier Montoyaren 'Emakume biboteduna' lana aztertuko dute parte hartzaileek Ane Mayozen gidaritzapean. 1992an argitaratutako bere lehenengo ipuin bilduma izan zen.

Udal Liburutegia, 19:30ean.

ASTEAZKENA 22

LASARTE-ORIA Kontzertua

Udal musika eskolako ikasleek kontzertu bufoa eskainiko dute Inauteriak direla eta. Estilo askotariko doinuak prestatu dituzte saio berezi honetarako. Sarrera doan.

Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

OSTEGUNA 23

URNIETA Hitzaldia

Bizikidetzaren sustatzeko jardunaldien baitan Pako Etxeberria forenseak hitzaldia eskainiko du. Honek Euskadiko 1960tik 2013ra bitartean izandako torturaren inguruan egindako ikerketaz ariko da. *Lekai, 19:00etan.*

ZINEMA

LASARTE-ORIA**MANUEL LEKUONA**

Monster Trucks
Igandea: 17:00.

Diré tu nombre
Igandea: 19:30.

ASTIGARRAGA**LEKAI**

Albert
Larunbata: 18:00.

ANDOAIN**BASTERO**

Figuras Ocultas
Larunbata: 19:30, 22:00.
Igandea: 19:30.
Astlehena: 19:30, 22:00.

Orm elurretako erresuman
Larunbata: 17:00.
Igandea: 17:00.

URNIETA**LEKAI**

Mascotas
Igandea: 16:00.

USURBIL**URBIL**

Ballerina
Ostirala: 16:00, 18:00.
Larunbata: 16:00, 17:10, 18:00.
Igandea: 16:00, 17:10, 18:00.

Batman: La lego película
Ostirala: 16:15, 18:30.
Larunbata: 16:15, 17:00, 18:30.
Igandea: 15:50, 17:00, 18:05.

Cincuenta sombras más oscuras
Ostirala: 16:25, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00, 22:30, 00:45.
Larunbata: 16:25,

18:00, 19:00, 20:00, 22:00, 22:30, 00:45.
Igandea: 16:25, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00, 22:30.

Contratiempo
Ostirala: 15:50.

Jackie
Ostirala: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 00:55.
Larunbata: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 00:55.
Igandea: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.

La la Land
Ostirala: 16:30, 19:20, 22:00, 00:35.
Larunbata: 19:15, 22:00, 00:35.
Igandea: 19:15, 22:00.

La Gran Muralla
Ostirala: 15:50.
Larunbata: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Igandea: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.

Lion
Ostirala: 16:35, 20:30.
Larunbata: 20:30.
Igandea: 20:30.

Manchester frente al mar
Ostirala: 21:40, 00:25.
Larunbata: 21:40, 00:25.
Igandea: 21:40.

Múltiple
Ostirala: 19:15, 20:45, 23:20, 00:55.
Larunbata: 19:15, 20:45, 23:20, 00:55.
Igandea: 19:15, 20:45, 23:20, 00:55.

Resident Evil: Capítulo Final
Ostirala: 22:50, 00:55.
Larunbata: 22:50, 00:55.
Igandea: 22:50.



LABURPENA

Diré tu nombre

Zuz.: Sean Penn. **Herr.:** AEB.(2016). **Aktoreak:** Charlize Theron, Javier Bardem, Adèle Exarchopoulos, Jean Reno, Jared Harris, Sibongile Mlambo, Bronwyn Reed, Sarah Muhoho, Ebby Weyime. **Iraupena:** 131 minutu.

Laguntza ematearen kontraesanak

Wren Pradierrek Liberian, erreskate misio batean Miguel León ezagutzen du. Wren laguntza humanitaria ematen duen erakunde bateko mediku eta zuzendaria da eta Miguel berriz, larrialdietako medikua da. Honek urteak daramatza Afrikako herrialde arriskutsuenetan lanean, gerra eta liskar artean bititza ohituta dago.

Bi protagonistak maitemindu egiten dira eta harreman bat hasten dute indarkeriak agintzen duen herrialdean murgilduta. Biek ordea oso modu desberdinean ulertzen dute inguruan duten gatazka eta asko izango dira bidean gaudituz beharko dituzten oztupoak. Laguntza

humanitarioaz eta zibilten bizitzaren gainean erabaki zailak hartzea egokituko zaie.

Tartean, kazetari bat dago (Adèle Exarchopoulos) eta honek bi protagonisten istorioa idazten joango da. Miguelen izaera impulsiboak Wrenen haserretu araziko du askotan baina biantzat lehenatasuna euren lana izango da, besteei laguntza ematea.

Filmak Cannesko Zinemaldian Film luzeen mailan lehiatu zen, saririk jaso ez zuen arren.

16 urtetik gorako publikoari zuzenduta dago. Gaztelaraz emango da. Sarrera 5,50 euro.

BITXIKERIAK



Txerrikiak egin eta dastatzeko aukera izango da asteburu honetan 'Virgen de Guadalupe' elkartearen. EXTREMEÑA ELKARTEA

Txerrikiak egin eta jateko asteburua Extremeñan

II. Txerri-hilketa asteburua izango da 'Virgen de Guadalupe' Extremeña Elkartearen. Larunbat eta igandean txerrikiak egin eta dastatu ahal izango dituzte bertara gerturatzen direnek. Bazkide ez diren herritarrek sarrerak erosi beharko dituzte.

Maddi Noriega

Txerri-hilketa egingo dute, bigarren urtez, asteburu honetan, 'Virgen de Guadalupe' Extremeña Elkartearen.

Larunbat goizean hildako txerriaren haragia birrindu eta txorizoak, odolkiak eta beste hainbat txerriki egiteko tartea izango da.

Ondoren, aurrez prestatuko diren ogi-mamiak jateko aukera izango da hamaiketako gisara.

Egurdian berriz, garbantzuak, sakramentuak eta meloia dastatzeko bazkaria egingo dute elkartearen bertan, eta gauerako ere, parrillada, entsalada eta flana jateko aukera izango dute bertara gerturatzen diren herritarrek.

Igandean jarraipena emango diote txerri-hilketa asteburuari.

Hamaiketakoak emango dio hasiera jai egunari, eta antolatzaileek jakitera eman duten moduan, 'perrunillak' salda eta aguardienta izango dira parte hartzaileek dastatu ahal izango dituzten goizeko

lehen mokaduak eta jaki tradizionalak.

Egunari bazkari eder batekin emango diote jarraipena gero, eta horretarako, urdaiazpiko errea, paletak eta melokotoia izango dira bazkari.

Sarrerak

'Virgen de Guadalupe' Extremeña Elkarteako aditza eman duen moduan, edozein herritarrek parte hartu ahal izango du astebururako antolatutako txerri-hilketan.

Horrela, elkartearen bazkide zein ez bazkideentzat sarrerak jarri dituzte salgai elkartearen bertan. Antolatzaileek azaldu dutenez, larunbaterako sarrerak geratzen badira ere, iganderako guztiak agortu dira.

Txerri-hilketa tradizioa

Extremaduran oso errotuta dagoen ohitura da txerri-hilketarena, eta tradizio horri eustsi asmoz, iragan urtean egin zuten lehenengoz Adarra kaleko egoitzan.

ZABALETA BERRI BIZIGUNEA



7 hitzartutako
ETXEBIZITZA BERRI
LASARTEN

2 LOGELA +12m²ko terraza
199.000 €tik + BEZ

3 LOGELA +16m²ko terraza
215.500 €tik + BEZ

TERRAZAK ETXEBIZITZA GUZTIETAN,
100m²taraino

BISTA EZIN HOBEAK SANTA BARBARA ALDERA
PERTSONALIZAZIO GUZTIAREKIN



DENA BARNE

Garajea, sukaldea, armairuak, pertsonalizazioa.

Izen emateko azken eguna: **APIRILAK 11**



943 36 89 42
www.zabaletaberri.es

residencial
zabaleta (berri)
bizigunea